

.../2023 Foru Dekretua, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen

ZIOEN AZALPENA

1. KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

2. KAPITULUA. OSAERA

2. artikulua. Osaera

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak lehendakari bat, bi lehendakariorde eta bokalak izanen ditu. Kontseiluaren osaeran bermatu beharko da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioa.

3. artikulua. Lehendakaria

1. Kontseiluaren lehendakaria izanen da arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko gaien eskumena esleituta duen departamentuko burua.
2. Kontseiluaren lehendakariak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 21. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.
3. Lehendakariaren kargua hutsik badago, kanpoan edo eri badago edo justifikatutako beste arrazoi bat badago, lehen lehendakariordeak edo bigarren lehendakariordeak, hurrenkera horretan, ordezkatuko dute.

4. artikulua. Lehendakariordeak

1. Lehen lehendakariordearen kargua beteko du arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokaren gaien eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularrak.

2. Lehen lehendakariordearen kargua hutsik badago, kanpoan edo eri badago edo justifikatutako beste arrazoi bat badago, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokaren gaian eskumena duen zuzendaritza nagusiko zerbitzuetako titularren artean izendatzen denak ordezkatu du.
3. Bigarren lehendakariordearen kargua kontseiluan ordezkari izan dauden Nafarroako migratzaileen elkartean eta gutxiengo etnikoetako elkartean artean adostasunez aukeratutako pertsona batek beteko du.
Adostasunik lortzen ez bada, bozketa bidez hautatuko da, hiru bostenen gehiengoaz.
4. Bigarren lehendakariordearen kargua hutsik badago, kanpoan edo eri badago edo justifikatutako beste arrazoi bat badago, ordezkari izateko hautatu denak beteko du kargua.
5. Lehendakariordeei dagozkien lehendakariak agintzen dizkien eginkizunak edo Kontseiluaren barne-funtzionamenduko arauetan zehazten direnak.

5. artikulua Idazkaria

1. Idazkaria izanen da arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokaren arloan eskumena duen departamentuari atxikitako pertsona bat, departamentu horren titularrak izendatua; titular horrek ordezkari bat ere izendatuko du.
2. Idazkariak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 22. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

6. artikulua. Kontseiluko bokalak:

1. Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluko bokal karguak honako hauek beteko dituzte:
 - a) Honako jarduketaren eremu hauetan eskumena duten zuzendaritza nagusietako titularrak:
 - a. Hezkuntza
 - b. Osasuna
 - c. Etxebizitza
 - d. Enplegua
 - e. Lana
 - f. Gizarte zerbitzuak

- g. Barnea
 - h. Komunikazioa
 - i. Kirola
 - j. Kultura
- b) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat, federazio horrek proposaturik.
 - c) Kulturarteko Bizikidetza Plana eta plan hori gauzatzeko teknikariak dituzten Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuta eta kulturarteko bizikidetzaren eta arrazakeriaren aurkako borrokaren arloan eskumena duen zerbitzuaren oniritziarekin.
 - d) Arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako arreta-zerbitzuko koordinatzailea.
 - e) Nafarroako Arartekoaren ordezkari bat, hark izendatua.
 - f) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkari bat, hark izendatua.
 - g) Nafarroako Foru Komunitatean arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuak egiten dituzten gizarte-entitateen hiru ordezkari, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera izendatuak.
 - h) Sei pertsona Nafarroako migratzaileen elkarteen eta gutxiengo etnikoetako pertsonen elkarteen ordezkari, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera izendatuak.
 - i) Nafarroako Migratzaileen Foroaren ordezkari bat, hark izendatua.
2. Zenbat kide titular diren, beste hainbeste ordezkari kide izendatuko dira, ordezkariak egin ahal izateko kargua hutsik dagoenean, titularra kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan.
 3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen dituzte bokalek.

7. artikulua. Kontseilukideak hautatzea eta izendatzea

1. Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluko kideak izendatzeko, arrazakeriaren eta xenofobiaren arloan borrokatzearen arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindua beharko da.
2. Organoaren osaeran gizonezkoen eta emakumezkoen arteko oreka bermatzeko, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua osatzen duten instituzio, erakunde edo entitateek bi pertsona proposatu beharko dituzte bokal bakoitzeko, gizonezko bat eta emakumezko bat. Arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzearen

arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak izendatuko ditu, kasua bada, zozketaz, emakumezko bat bokal izanen duten erakundeak, oreka hori lortzeko.

3. Aurreko artikuluko g) eta h) letretan adierazitako pertsonak izendatzeko, honela egingen da hautaketa:

a. Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuak egiten dituzten gizarte-entitateen hiru ordezkari izendatuko dira, Nafarroan erregistratutako eta beren hautagaitza aurkezten duten gizarte-entitateen adostasunez, baldin eta Nafarroan arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuetan esperientzia badute. Adostasunik lortzen ez bada, gehiengo soilez bozkatuko da.

b. Nafarroako migratzaileen elkarten eta gutxiengo etnikoetako pertsonen elkarten sei ordezkari izendatzeko, Nafarroan erregistratuta dauden eta hautagaitza aurkezten duten elkarten arteko adostasuna beharko da, eta gutxiengo etniko guztien ordezkari egokia bilatuko da. Adostasunik lortzen ez bada, gehiengo soilez bozkatuko da.

4. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetan, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluko kide izateko hautagaitzen aurkezpena gauzatu da arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularrak onetsitako jarraibideen arabera, hilabeteko epean, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratutako partaidetza-prozesu bat irekitzen denetik zenbatzen hasita.

8. artikulua. Agintaldia

1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua lau urtean behin berrituko da.
2. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak jardunean jarraituko du hura osatzen duten kide berriak izendatu arte.

9. artikulua. Kargu-uztea

1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluko kideek, beren karguagatik kide badira, kargua uzten dutenean utziko dute kontseiluko kargua.
2. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluko kide izendatu diren gainerako pertsonak kide izateari utziko diote honako arrazoi hauetako bat artean denean:
 - Izendapen aldia bukatzeagatik.
 - Hautatu zituzten erakunde edo elkarteek proposatuta.

- Berariaz uko egiteagatik.
 - Desgaikuntza judizialagatik edo heriotzagatik.
 - Kide den elkarte edo fundazioari dagokion erregistroan baja emateagatik.
 - Epai irmoz kondenatua izateagatik gorroto- eta diskriminazio-delituengatik edo Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 3. artikuluan jasotako adierazpenetako batengatik.
3. Behar baino lehen gertatzen diren hutsuneak 7. artikuluan ezarri bezala beteko dira. Kontseiluko kide berriaren izendapen aldia bukatuko da kontseilua berritzen denean, non eta ez den gertatzen aurreko apartatuan ezarritako egoeretako bat.

3. KAPITULUA. ANTOLAMENDUAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ARAUBIDEA

1. atala. Osoko Bilkura eta lantaldeak

10. artikulua. Osoko Bilkura

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkura izanen du eta haren kide izanen dira kontseiluko kide guztiak.

11. artikulua. Lantaldeak

1. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak bete ditzan, lantaldeak eratzen ahalko dira intereseko gaiak aztertzeko, hala behar denean.
2. Lantaldeetan Kontseilukoak ez diren pertsonak sartzen ahalko dira, aldez aurretik lantaldearen koordinatzaileak lehendakariari eskatuta eta hark onartuta, haien esperientzia profesionala edo ezagutza teknikoak interesgarritzat jotzen badira Kontseiluaren eginkizunak betetzeko. Bereziki, genero arrakala nabarmen adierazgarria den gaietan, generoaren arloko adituen laguntza izateko ahaleginak egingen dira.
3. Lantaldeak sortzeko erabakiak honako alderdi hauek zehaztuko ditu:
 - a) Osaera, gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkaritza orekatua izatea kontuan hartuz.
 - b) Koordinatzailea, beharren arabera lehendakariaren eta idazkariaren lanak gauzatuko dituen lantaldean.
 - c) Lantaldearen xedea eta, hala badagokio, haren edukiari buruzko jarraibideak.
 - d) Bere lanaren emaitzak lehendakariaren bidez Osoko Bilkurari helarazteko duen epea.

e) Lantaldeek behar bezala funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste gai batzuk.

12. artikulua. Adituen bertaratzea

Lehendakariaren aldez aurreko baimenarekin, aditu egokiak bertaratzen ahalko dira Osoko Bilkurara eta lantaldeetara, hitza izanik baina botorik gabe, bilkura jakin horretan landuko diren gaietara buruz duten ezagutza berariazkoa dela-eta, eta eztabaidatu beharreko gai zehatz horretarako.

13. artikulua. Bileretarako sarbide librea

Hala eskatzen dutenak joaten ahalko dira, entzule gisa, hitzik gabe eta botorik gabe, osoko bilkuretara, lehendakariaren aldez aurreko baimenarekin.

14. artikulua. Barne-funtzionamendua

Kontseiluak bere barne-funtzionamendurako beharrezkoak diren arauak edo akordioak onesten ahalko ditu.

2. atala. Bilkuren araubidea

15. artikulua. Bilkura arruntak eta bilkura bereziak

Arazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak bilkura arrunta egingen du urtean bitan gutxienez. Era berean, bilkura bereziak egingen ahal ditu lehendakariak hala erabakitzen badu edo gutxienez 10 bokalek idatziz eskatzen badute. Kasu horretan, eskaera idazkariari bidaliko zaio, bilkurarako aurreikusitako data baino 30 egun lehenago gutxienez.

16. artikulua. Bilkuretarako deialdia

1. Osoko bilkuren deialdi arruntak gutxienez 15 egun natural lehenago egingen dira. Salbuespenez, epe hori laburtzen ahalko da, lehendakariak erabakitako presako arrazoiak tarteko direnean.
2. Deialdiak bitarteko elektronikoen bidez egingen dira, eta gai-zerrendarekin eta eztabaidatzeko behar den dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira, ahal denean, bilkura zein baldintzatan egingen den eta, hala badagokio, konexio-sistema.

3. Bilkuretako gai-zerrendan aztertu behar ez diren gaiak sartzeko proposamena lehendakariak egin beharko du, lehendakariordeetako batek, sei bokalen laguntzarekin, edo gutxienez bokalen herenak. Eskatera idazkariari bidaliko zaio.
4. Aitzineko bilkuraren edo bilkuren aktaren onspena eta galde-eskeetarako atal bat sartuko da deialdi arrunten gai-zerrendan.
5. Ezin izanen da eztabaidatu edo erabaki eguneko gai-zerrendan sartua ez dagoen deus, salbu eta, Osoko Bilkurako kide guztiak bildurik daudela, gaia presakoa deklaratzeko bada Kontseiluko kide gehienek horren aldeko botoa emanda.

17. artikulua. Eraketa

1. Osoko Bilkura lehen deialdian eta balio osoz eratzeko, beharrezkoa izanen da bertan egotea Kontseiluko lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkioak, hala badagokio, eta Osoko Bilkura osatzen duten kideen erdiak, gutxienez ere.
2. Bigarren deialdian balio osoz eratutzat joko da gutxienez honako hauek bertaratzen badira: lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta kontseiluko kideen herena, gutxienez. Lehenbiziko deialditik bigarrenera ordu erdi bat iraganen da, gutxienez.

18. artikulua. Baliabide elektroniko bidez egindako bilkurak.

Arazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluak bilkurak urrutetik egiten ahalko ditu, kide guztiak edo baten bat toki desberdinetan daudenean, betiere baliabide elektroniko bidez (halakotzat jotzen dira bide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak ere) bermatzen badira honako hauek: kideen identitatea, haien adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea eta kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean, eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egon behar direla. Besteak beste, baliabide elektroniko baliadunak izan behar dira, konparaziorako, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.

3. atala. Erabakiak

19. artikulua. Erabakiak nola hartu

Erabakiak hartuko dira Osoko Bilkuran dauden Arazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseiluko kideen gehiengo soilez. Batzordeburuak hautsiko ditu berdinketak.

20. artikulua. Aktak

1. Idazkariak bilera bakoitzaren akta eginen du, eta, hartan, agertuko da nor bertaratu den, zein izan den gai-zerrenda, noiz eta non egin den, deliberazioko punturik garrantzitsuenak, bozketa modua eta emaitza, eta hartutako erabakien edukia.
2. Lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, eta horiek onetsiko dira bilera horretan bertan edo hurrengoan.

Xedapen gehigarri bakarra. Kontseiluaren eraketa

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurka Borrokatzeko Nafarroako Kontseilua eratuko da, proposamen egokiak egin eta bertako kideak izendatu ondoren, foru dekretu hau indarrean jartzen denetik 3 hilabete iragan baino lehen.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko gaikuntza

Baimena ematen zaio arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzearen arloan eskumena duen departamentuko titularrari, foru dekretu honetan xedatutakoa garatu eta betetzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.